



Deskribapena eta araudia

TXIPIROI SWIM- II. EA-KO KAIHARRIA ITSAS ZEHARKALDIA

DATU OROKORRAK

IZENA	I. TXIPIROITXU SWIM 2017 - Eako HONDARTZA-MOILA ITSAS ZEHARKALDIA
DATA eta LEKUA	2017-eko UZTAILAK 29, 10:30-etan. EA, Bizkaia
DISTANTZIA eta IBILBIDEA	±300 m EAKO HONDARTZA - MOILA
KATEGORIAK	Kimuak eta haurrak (2007 eta 2002 bitartean jaioak; 10-15 urte)
PARTAIDEAK	Kopuru maximoa: 50
SARIAK	Itsas zeharkaldi ez lehiakorra. Partaide guztiak sarituak izango dira.
NEOPRENOA	Erabiltzeko aukera dago.
ANTOLATZAILEAK	BIRA BIRRA KIROL KLUBA

IBILBIDEA





Deskribapena eta araudia

INTERESEKO DATU GEHIAGO:

- **Arropa/motxilak gordetzeko aukera:** Eako moilan.
- **Dutxak:** publikoak (Eako moilan eta Eako hondartzan).
- **Segurtasuna uretan / zerbitzu medikuak lurrean:** Segurtasuna bermatua SUP-ak, kayak-ak, motordun ontzia eta GURUTZE GORRIA-ko ontzi profesionalak, lurreko anbulantzia eta sorosle postua.
- **Aseguruak:** Antolakuntzak Erantzukizun Zibileko aseguru kontratatua du eta baita ere Istripu Poliza bat federatu gabeko partaide bakoitzarentzat
- **Janari/edari horniketa:** kirol proba ostean egongo da.
- **Opari poltsa** partaide guztientzako.

ITSAS ZEHARKALDIAREN ARAUDI ZEHATZA:

Kategoriak:

Kimuak eta haurrak (2007 eta 2002 urteren bitartean jaioetakoak; 10-15 urtetakoak)

Denbora neurketa: Ez – Txipa barik (igeriketa zeharkaldi ez-lehiakorra)

Gehienezko denbora muga: 30 min.

1. IZEN-EMATEA

Izen-ematea erabat pertsonala da, ezin da transferitu edo elkarbanatu. Izen-emateak araudi dokumentu honen artikuluko guztiak betetzeak adierazten du, dortsal erorsketa baldintzak barne. Kirol probara gerturatu ezin den eta izena emanda duen partaideak, ezin dizkio bere parte-hartze eskubideak transferitu beste pertsona bati.

Beraz, edozein pertsona, bere parte-hartze plaza beste hirugarren bati transferitu ezkerro, pertsona honek egindako edozein ezbehar edo istripuaren erantzule zuzena eta bakarra izango da (kasu honetan, euren gurasoak/tutoreak). Antolakuntza ez da inondik-inora erantzule izango horrelako kasuak ematen direnean. Antolakuntzak eskubidea izango da, horrelako kasuren bat antzematen duenean bai dortsala transferitu duen pertsonari eta baita berea ez den dortsala erabiltzen duena zigortzeko.

Itsaso zein giro baldintza txarren aurrean edota beste ustekabe inportante baten aurrean (adibide: marmoka ugarien agerpena, korronte handiak, haize bolada handiak, etab.) non partaideen segurtasuna bermatzea posiblea ez denean, antolakuntzak eskubidea izango du ibilbidea moldatzeko edota kirol proba bertan behera uzteko. Kasu hauetan, antolakuntzak ez du izen-ematearen diru kantitatea itzuliko.

- Izen-ematearen barnean:
 - Eako TXIPIROITXU SWIM 2017 Itsas Zeharkaldian parte hartzeko aukera.
 - Istripu aseguru
 - Osasun laguntza / sorospidea kirol proba unean eta bukaeran
 - Janari / edari horniketa kirol proba ostean



Deskribapena eta araudia

- Izen-ematea, prezioak **5€**

TXIPIROI SWIM 2017 kirol probarako izen-ematea, soilik bide hauetatik (internet bidez) burutu daiteke (azken eguna 2017/07/26):

www.txipiroiswim.eus

www.sailkapenak.com

Edo, plazarik balego, kirol proba egunean bertan (2017/07/29, 10:00-ak arte) dortsal banaketa postuaren ondoan.

2. PARTE-HARTZEA ETA ASEGURUAK

Partaide guztiek kirol proba hau burutzeko osasun egoera egokian daudela baieztatzen dute eta aldi berean ez dutela TXIPIROITXU SWIM kirol proba egiteko eragozten dieten arrazoen ezagutzarik. Honengatik, igerilariek euren erantzukizunaren gain parte hartzea onartzen dute.

Antolakuntzak jakinarazten du TXIPIROITXU SWIM kirol proba burutzeko parte hartzaileek, prestakuntza ona, esperientzia eta osasun egoera egokia izan beharko dute; horrela ez bada, kirol proba honetan ez parte-hartzearen gomendioa luzatzen dugu (hau, partaideen guraso edo tutoreen erantzukizuna izango da).

Ildo honen inguruan, antolakuntzak zalantzak baditu edozein partaideren egoerarekin kirol proban parte hartzeko, mediku agiri ofizial bat eskatuko zaio, non, mediku kolegiatu baten onarpena erakutsiko duen, TXIPIROITXU SWIM itsas zeharkaldia burutzeko inolako osasun eta segurtasun arazorik gabe. Honekin jarraituz, antolakuntzak eskubidea izango du, bere irizpidearen arabera baldintza minimoak betetzen ez dituzten partaideak ez onartzeko eta proba egunean dortsala kentzeko.

Parte-hartzea edozein naziotasuneko pertsoneri luzatua dago, igeriketan federatuak edo federatu gabeak eta 2007-2002 urteren bitartean jaiotakoentzat. Probvan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da lizentzia federatiboa (Igeriketa Federazioa) edo, euren guraso edo tutorearen baimen agiria sinatuta aurkeztea dortsala jasotzerakoan.

Indarrean dagoen legedia jarraituz, antolakuntzak Erantzukizun Zibileko aseguruia kontratatua du eta baita ere Istripu Poliza bat federatu gabeko partaide bakoitzarentzat.

3. SEGURTASUNA

Segurtasun operatibo bat bermatua dago bai uretan baita lurrean ere. Kirol proba egunean, uretan, segurtasun lantalde hau egongo da: motordun ontzia, SUP-ak, Kayak-ak, GURUTZE GORRIA-ko ontzi profesionalak. Lurrean, osasun zerbitzuak ez dira faltako, bai GURUTZE GORRIA-ko anbulantzia bat eta baita ere.

Antolakuntzako segurtasun eta osasun zerbitzuak eskubidea izango dute partaideren bat TXIPIROITXU SWIM kirol probatik ateratzeko arrazoi mediku edo aurrerago azalduko den arrazoiak direla medio.



Deskribapena eta araudia

4. MATERIALA

Neoprenoaren erabilera baimenduta dago baina ez da derrigorrezkoa. Sariak neopreno barik parte hartzen dutenentzat izango dira eskuragai soilik. Derrigorrezkoa izango da, antolakuntzak banatuko duen igeriketa txanoa erabiltzea uretako ikuspena eta segurtasun arrazoiengatik. Antolakuntzak banatu ez duen txano desberdin bat erabiltzean duenak, TXIPIROITXU SWIM probatik kanpo egongo da lehenengo momentutik; antolakuntzak ulertzen baitu probatik kanpo dagoen edozein pertsona, ezin dela ibilbide erdian egon, bertako partaideak eta kirol-proba bera oztopatu nahian, eta beraz, segurtasun neurriak erabiliz, probatik aldentzera behartuko zaio.

Aparatu elektronikoa hauek baimenduta daude, hala nola, erlojuak, pultsometroak edota uretako GPS-ak, baina erabat baztertuta egongo dira (ezin erabili) uretako musika aparatuak edo antzekoak, hau da, segurtasuna bermatuko ez duen edozein gailu edo aparatu. Edozein material osagarri, propultsioa edo flotazioa lagunduko dutena adibidez, ezin izango dira erabili; antolakuntzak erabakiko du, salbuespenik balego, ze material osagarri erabiltzen utziko duen, uzten baldin badu; beti ere ez dira inolako abantailarik utziko ezta partaideen segurtasuna arriskuan jarriko.

5. JANARI/EDARI HORNIKETA

TXIPIROITXU SWIM antolakuntzak janari eta edari horniketa ahalbidetuko du proba bukaeran.

6. PROBA BUKATU ETA BERTAN BEHERA UZTEA

Antolakuntzak beharrezkoa ikusten duen unean eskubidea izango du partaideren bat probatik ateratzeko eta bere parte-hartzea bertan behera uzteko. Beti ere, partaide guztien segurtasuna jarriko da lehentasun bezala. Partaide baten parte hartzea bertan behera uzteko arrazoiak:

- ✓ Igerilariak denbora limiteak betetzen dituenean (denbora maximoa TXIPIROITXU SWIM proba betetzeko: 30 min)
- ✓ Baldintza meteorologiko desagokiak proba burutzeko, non partaideen segurtasuna bermatzeko zailtasunak egon daitezke.
- ✓ Igerilari batek deshidratazio seinaleak, hipotermia, neke larria, igeriketa erritmo guztiz geldoa edo igeri egiteko ezintasuna adierazten duen bestelako seinaleak erakusten dituenean.
- ✓ Segurtasun baldintzak eta mugak errespetatzen ez dituzten igerilariak. Igeri egin beharko da segurtasun lan talde teknikoak egiten dituen adierazpenak jarraituz, beti.
- ✓ Igerilari batek sorospena eskatzen duenean beso bat edo biak altxatuz eta mugituz, laguntza seinaleak adieraziz.

7. PROBA IBILBIDEAREN EGOKITZEA

Baldintza meteorologiko desagokiengatik antolakuntzak ibilbidea aldatu edo egokitu dezake, beti ere, partaideen segurtasuna bermatzen baldin bada.